

## GURE BEZEROAK



### Gorlizko Ospitaleak Hausnarketa Estrategikoa egiteko Acorde Consulting-en laguntza jaso du

Acorde Consulting-ek, 2008 – 2011 Plan Estrategikoa erredaktatzearekin batera, Gorlizko Ospitaleak burututako hausnarketa prozesuan emandako laguntza amaitu du.

Zentroaren Zuzendaritzak, ospitalearen aktibitatean eragina daukaten aldaketa demografiko, soziologiko, legal eta teknologikoetara egokitzeko, bere strategiaren etengabeko birplanteaketa egiten du, plan estrategikoa berriak eginez.

Acorde Consulting-ek Hausnarketa Estrategikoarekin erlazioa duten proiektu guztietan berezko metodologia bat erabiltzen du, mugarriragusiak honako hauek izanik:

- Misioren definizioa.
- AMIA.
- Baloreen definizioa.
- Ikuspegiaren definizioa.
- Mapa Estrategikoa burutzea.
- Aginte taularen finkapena.
- Plan Estrategikoaren erredakzioa.



Gorlizko Ospitalearen kasuan AMIA egoki bat egiteari garrantzi handia eman zaio, hurrengo bi helburu hauek betetzen saiatuz: Ospitaleko profesionalen parte hartzea handituz eta osasun arloko zein ospitalearekin erlazioa duten beste arlo batzuetako pertsonak inplikatzeko. Azken pertsona talde honen parte hartzearekin Ospitalearen kanpo ikuspegi landu nahi izan da.

Carmen Rodriguez, Gorlizko Ospitalearen Kudeatzailearen esanetan, *"Gure ideia AMIA analisia indartzea izan da, aurreko plan estrategikoan baino pertsona gehiagoren kolaborazioa bilatuz"*.

Helburu bikoitz hau erabat bete dela esan dezakegu, lehenengo helburuaren kasuan, talde moderazio eta partehartze teknika berritzaileak erabiliz eta, bigarren helburuaren kasuan, hausnarketa talde berezi bat sortuz. Talde honetan José Ramón Elorriaga Jauna (Osasun Saileko Lurralde Zuzendaria), Julen Ballesteros Jauna (Gurutzeta Ospitaleko medikua), Santiago Rabanal Jauna (Galdakoako Ospitaleko Kudeatzailea), Carlos Sola Jauna (Uribe Eskualdeko Kudeatzailea), Iñaki Iribar Jauna (Bizkaiko Foru Aldundiko I.F.A.S. Ekintza Sozialeko Zuzendaria) eta Enma Calzada Anderea (Gorlizko Alkatesa) parte hartu dute.

*"Pertsona guztien parte hartzeak (Ospitaleko eta kanpoko pertsonak) azken emaitza hobetu eta aberastu baino ez du egin, eta lerro hauetatik, beren ahalegina, konpromisoa eta ardura eskertu eta aintzat hartu nahiko nuke"* aipatzen du Carmen Rodriguezek.

## ERRENDIMENDU ALTUKO ENPRESA TALDEEN TREBAKUNTZA

Acorde Consulting-ek Ingurualdek Pertsona Ekintzailearen Egunean antolaturiko "Errendimendu altuko enpresa taldeen trebakuntza" jardunaldian parte hartu zuen.

Jardunaldian zehar, enpresa partehartzaileek hainbat kirol proba burutu zituzten, enpresa mundura egokitzen diren lidergo eta talde lanaren inguruko teknikak lantzeko helburuarekin. Horretarako Iurbentia Bilbao Basket taldeko kirolarien aholkuak jaso zituzten.



## ERANTZUKIZUN SOZIALARI BURUZKO BIGARREN KONGRESUA

### Acorde Consulting-eko aholkulariak Erantzukizun Sozialari buruzko bigarren Kongresuan parte hartu dute

Iragan maiatzak 7-an Erantzukizun Sozialari buruzko bigarren Kongresua ospatu zen FOARSE-k (Arabako Erantzukizun Sozialerako Foroa) antolatua. Helburua Erantzukizun Sozialaren zabalkundea egitea izan zen, enpresa munduan baliagarriak izan daitezkeen gako eta esperientziak elkar banatuz.

Kongresuan, gai honetan adituak diren pertsonak eta beren erakundeetan jardunbide egokiak ezarri dituzten enpresek parte hartu zuten. Ekitaldiaren bigarren zatian tailer praktikoak burutu ziren eta lehenengo tailerra Jose Antonio Calvo, Acorde Consulting-eko kudeatzaileak eta Raquel Escallada Acorde Consulting-eko aholkulariak gidatu zuten.

*"Enpresen jardunbide egokien barne eta kanpo komunikazioa burutzeko ereduak"* tailerrak, enpresek beren Erantzukizun Sozialaren kudeaketan burutu beharreko azken fasean sakondu nahi izan zuen: beren interes taldeei lortutako emaitzen komunikazioa.

Hizlariak, komunikazio hau zein gradutan egin ohi den baloratu zuten eta, balorazio hau, interes-talde bakoitzak jasotzea espero duen informazioarekin kontrastatu zuten. Azkenik, Erantzukizun Sozialaren arloko informazioa transmititzeko kanal eta moduetaz gomendio batzuk eman zituzten.



Jose Antonio Calvo (Acorde Consulting-eko kudeatzailea), Raquel Escallada (Acorde Consulting-eko Aholkularia), Roberto Fañanás (DTS Oabe) eta Jon Kepa Izaguirre (AIB Laboratorio de Biotecnología)

## BERRI LABURRAK

Iragan maiatzak 9-an, enpresan **Xertatu: adi metodologiaren bitartez**, Erantzukizun Sozialaren ezarpena diruz laguntzeko deialdi berri bat zabaldu zen. Deialdi hau 250 langile baino gutxiago daukaten enpresei zuzenduta dago eta proiektuaren kostuen % **80-a diruz lagunduta dago**.

Acorde Consulting-ek berrikuntzaren kudeaketa proiektuak garatzen jarraitzen du, ISEB-ek sustatzen duen **Berrikuntza Agendak programaren bitartez**. Gaur egun, industria, zerbitzu eta hezkuntza sektoreko sei erakunderekin ari gara lanean eta hiru proiektu gehiago amaitu ditugu dagoeneko.